

Nafar **k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko azaroak 5 / III. urtea / 100. zenbakia

Metropoli forala



Sartagudako ikastolaren haurrak, atarian.

ALBERTO BARANDIARAN



FELIPE RIUS

Udazkena ohizkoa baino tristeago suertatzen ari zaigu, macartismoa berriro nagusitzen ari da —disimulatu nahian gauchismoaren mozorroa jantzi badu ere—, sorgin ehiza garaia zabaldu dute ofizialki eta gure ondoan zeudenak eraman dituztela ohartzen garenean isilean edaten ditugu malkoak inor poztu ez dadin. Humprey Bogarten lagunak ere eraman zituzten, eta gure bardadea antzekoa izan daitekeela pentsatzean zigarro bat piztu dut eta sonbreroa jantzita kaleetara atera naiz adiskideen bila. Desolaziak ez nau ustekabeen harrapatu, egun hauetan jende gehiena ideologiaren hiletetan egoten baita eta konfideten siniestroak besterik ez dira ikusten plazetan usoei ogia emanez.

Onenak joaten direla esan ohi da holakoetan. Ez dakit beti egia den ala ez, baina omenalditxo bat behinik behin zor diégu. Gu baino hobek direla dudarik ez dago, eta horregatik kendu dituzte gure ondokik parra egiten ez dakitenek, beren konziliabuloetan sentitzen duten inbidia eta gorrotoa izkutatzen saiatzen direnek. Gero guregana etorriko ote diren galdetzen diogu gure buruari; ni ez nago Bertold Brecht bezain seguro, nire ezjakintasunak, nire mediokritateak ez dute holako ahaleginik merezi, baina agian ez dira horretaz ohartuko. Bitartean nire kopa altxatu dut eta lehengo garaiez oroitu naiz nostaljiak eta era berean pozez, bai baitakit azkenean Luchino Viscontiren pertsonaiak bezalakoak garela, fisikoki garaitu gaituzte, baina irabazle moralak gara, eta gaur egun hori ez da gutxi. Gainera, amorrua guk baino askoz hobeki adierazi duen Pablo Antoñanaren nobela batean titulua hartuz, ez gaude bakarrik, adiskideak ondoan ditugu; haiek, berriz, aliatu koiunturalak besterik ez dute, edozein momentutan bakarrik utziko dituztenak.

Humprey kamararen aurrean trufatu zen bera ete bere lagunak hondoratu nahi zituztenez, eta guri metaforak geldituko zaizkigu beti gure burua defendatzeko eta inkiadore berriak salatzen. Baina egun batean metaforak alde batera utzi ahal izango ditugu, sorgin guztiok mahai baten inguruan bilduko gara eta parre egingo dugu goizera arte, horixe baita haiek gehien izorratzen dituenak.

Erriberako kimu ahulak

Gazteak dira oraindik, ez baitute kurrutu beste ikastolen bidea, baina, inon baino gehiago, batzuen ahalegina eta lanaren fruituak dira, «kimu berriak» diote haiek. Erriberan ikastola zabaldu eta aurrera eramatea ez da lan erraza izan —inon ez—, giroa eta ingurua arrotza izan baitzaie frankotan, haize hotz eta bortitza. Kortez, Tuteran, Sartaguda eta Lodosakoak dira, goraxeago Biana, eta sortu zireneko

egoeraren antzekoa pairatzen dute egun; hori bai, askoz ere haur gehiagorekin. Hala ere, lanaren fruituak aski estimatuak ez izateaz kexu dira, eta askotan ahaztuta daudela azpimarratzen dute. Tuteran bereziki minduta dira, Nafarroa Oinez-en atzetan gelditu baitira bi urtez, dirua hil edo bizikoa zaien une hauetan. Hala ere, ez dute amore eman nahi, batzuetan desanimoa antzeman baldin bazaie ere.

Duela bi urteko abenduaren 6an sortu zen NAFAR-KARIAk ehun ale bete ditu gaur, bi urte egiteko atarian dagoela. Nafarroatik nafarrendako egina, lurraldeotako informazioa euskaraz emateko EGUNKARIAren ahalegin berezia duzue gehigarria, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikaren dirulaguntzak bideratua. Ehun ale hauetan

100.
ALEA

saiatu gara Nafarroa osoko ikuspegia hartzen, Kortzesetik Berara eta Erronkaritik Sakanara, muga eta topikorik gabe. Aldaketak izan dira denbora honetan, eta askoz ere gehiago sartuko ditugu luze gabe, Euskal Herriko lurraldetik anitzenaren barrukoa ahalik eta hobekien jaso asmoz. Hori lortu bitartean, 200. alearen bila goaz, ttipi-ttapa.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Natxo Barberena pintorearen erakusketak ikusgai dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodezno Kontea kalean duen aretoan. Azaroaren 14a arte irauzen du erakusketak, eta ikusteko ordutegia ohizkoa da: lan egunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etara.

ANTZERKIA



'Poemas visuales' izeneko ikuskizuna plazaratuko du igande honetan, azaroak 7, Jordi Beltran antzerkilariak. Emanaldia arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan, San Agustin kalean. Sarrerak 600 pezetatik salduko dituzte eta gazte txartela edukiz gero, 300 pezetatik.

'Rezagados' izeneko antzerki lana eskainiko du gaur, azaroak 5, Geroa Teatro taldeak, gaueko 22.00etatik aurrera. Zizur Nagusiko udalak antolatuta, herriko Kultur Etxean izanen da. Sarrera dohainik.

'Azucar y vinagre' antzezlanak plazaratuko du igande honetan, azaroak 7, Pikor Teatro taldeak. Antzerki emanaldi hau Lizarrako Julian Romano Kontserbatorioan izango da, arratsalde partean, herriko Almudi talde kulturalak antolatutik.

MUSIKA



Kojon Prieto y los Huajolotes musika taldea ariko da larunbat honetan, azaroak 6, Barañaingo Retegi pilotalekuan. Kontzertua gaueko 22.00etan hasiko da, eta ondoren, dantzaldiak jarraituko du Acuarium taldearekin. Sarrera dohainik izanen da.

MINTZALDIAK



Blanca Andreu idazleak mintzaldi bat emango du datorren ostegunean, azaroak 11, Iruñean, Nafar Ateneoak antolatutik. Emakumea eta Literatura zikloaren barruan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Aurrezki Kutxa Munizipalak Armada Etorbidean duen aretoan.


'Alpes 93' izenburupean hitzaldi bat eskainiko du binar, azaroak 6, Patxi Gamez mendigoizaleak, Berriozarko Gazte Elkarteak antolatu duen 'Mendiaren Astea' ren barruan. Igandean, Mikel Reparazek hitz egingo du 'Expedicion Bex Everest 92' gaiari buruz. Biak arratsaldeko seietan hasiko dira, Elkarte lokaletan.

Orreaga-Orbaitzetako ola

Napar Mendizale Federakundearen 1993-94ko egitaraua hasiko da asteburu honetan, hilak 7, Urkulu eta Orbaitzeta bitarte egingo den ateraldiarekin. Xabier Goñik darman Pedagogia Bokaliaren bidez, azarora eta maiatza bitarteko asteburu gehienak mendira, bereziki Pirinioetara ateratzeko aukera izango da, txango errazak eta erakargarrien bidez. Gogoratu izena emateko osteguna amaitzen dela, ahal izanez gero, arratsaldeko zortzietatik aurrera, beraz, hobe duzu ateraldien egitaraua Mendi Federazioan bertan eskatzea.

Asteburu honetarako Irati oihana aukeratu dute federazioan, benetan ikusgarria izanen baita, udazkenean sartuta gaudela. Ibilbidean Urkuluko dorrea, Organbide inguruko trikuharrak, et paraje ederrak topatu ahal izango ditugu.

Igandeko goizeko zortzietan aterako da autobusa, Iruñeko autobus geltokitik. Orreagara heldu eta botak jantzi ondoren, Ibañetako menditik hasiko gara igotzen. Mantso-mantso ibiliz, Espainiako gerra zibileko bunkerrak ikusiko ditugu, milaka baitaude. Basoa, imajina eza-



J. APEZTEGIA

zue, ikusgarria, kolore guztietako zuhaitzak azalduko zaizkigu: haritzak, pagoak, pinuak... eta bakoitza bere kolore bereziarekin.

Ibañetatik Ortanzurietaraino dagoen pistaz baliatuz, Lepoeder izeneko lepora helduko gara, eta bertan hamaiketako hartuko dugu. Jan ondoren, eta Menditxipi alde batera utzi ondoren, Txangoako bidea hartuko dugu. Hemen agertzen da muga. Urkulu eta Txangoaren

arteko leporaino heltzen da pista bat Frantziatik, eta lepo hauek izugarriko iskurira azaltzen zaigu, Luzaide amildegia, hain zuzen ere. Urkulura igoko gara gero. Bere tontorean erromar dorre baten aztarnak daude. Hortik Donibane Garazi ikus daiteke, eta baita Pirinioak ere. Urkuluren azpian trikuharrak eta kromlechak ugari, eta ordu erdi bat jeitsi ondoren, Orbaitzetako olaraino helduko gara.

ASTEKO PERTSONAIK



Juanma Bajo Ulloa
Zinegilea

'La madre muerta' izeneko pelikula aurkeztu zuen asteartean Juanma Bajo Ulloa gasteiztarrak Iruñean, Golemetan, nola ez. Bere bigarren luzemetraia da, eta bertan, Karra Elejalde eta Ana Alvarez dira protagonistak. Argi utzi zuen zinemagileak filme honek, 'Alas de mariposa' filmaren kasuan bezala, «ezohizko historia» kontatzen duela. «Ni zerbait ezberdina kontatzen saiatzen naiz beti, besteek niri kontatzea gustatuko litzaidakeena, zinemara joaten naizenean ikustea gustatuko litzaidakeena». Pelikula honek kritika gogorak jaso ditu aurkezpen ofiziala egin aurretik, Madrilgo bi egunetako hitz bortitzak atera baitziren. «Berria den guztia suntsitu nahi dute», zioen berak, gainera, «euskal usaina badu, birrindu nahi dutela ematen du».



Federico Tajadura
PSNko parlamentaria

PSN-PSOEn 24 kidek alderdi berritzearen aldeko agiri bat aurkeztu zuten joan den asteazkenean. Federiko Tajadura eta Jose Luis Uriz parlamentariak barne, alderdiaren «demokrazia eza» eta «autoritarismoa» salatu zuten agiriaren bitartez. Beren asmoa eztabaida bultzatzea dela azpimarratu zuten, ez borroka sortzea alderdiaren barruan. Oso kritikoak agertu ziren alderdiarekin, eta bai PSOE bai PSN kritikatu zuten. Sarritan, «zenbait alderdikide kritikoak isilarazi» egin dituztela salatu zuten, «defizit demokratikoa» aipatzerakoan. Auto-kritika egin ondoren, alderdiaren berrikuntzak nondik nora joan beharko lukeen adierazi zuten, eta aipatutako gaien artean, ezkerria indartzea azpimarratu zuen Tajadurak.



Jose Luis Beaumont
Itoizko koordinadorearen kidea

Bihar izanen da Iruñean 'Itoitz, paralizazioa' lemapeko manifestazioa, Itoizko koordinadoreak antolatuta. Berarekin batera, alderdi politikoak, sindikatuak, talde ekologistek, eta abarrek egin dute bertan parte hartzeko deialdia. Gauzak erabat nahastuta daude gai honen inguruan. Egunero dago berriren bat, alde batera edo bestera. Larunbatean aurkeztu zuen Jose Luis Beaumont koordinadorearen abokatuak ICONAK gaiari buruz egin duen txostena. Instituto honek garbi dio proiektuak izugarriko kalte ekologikoak sortuko dituela, baina egin edo ez egitearen erabakia «guztiz politikoa dela». Hori bai, urtegia bertan behera uztea ere alternatiba bezala hartu behar dela gogoratu zuten.

AHAZTU GABE!

ZIRKOAREN erreibindikazio eguna izango da igandean, azaroak 6, Iruñean. Horretarako, Espainiako talde eta elkarte ugari hartuko dute parte Malabaristen Elkarteak antolatu dituen ekitaldian. 'Zirkoaren errekonozimenduagatik', 'Zirkoa bizirik dago' lemapean aurkeztu dute eguna, «zirkoa ere artea da» diote beraiek, eta bai Nafarroa bai Gobernu zentralerako laguntza eskatuko dute. Horretarako, kalejira berezia antolatu dute talde hauek Iruñean, Gaztelu Plazan eguerdiko 12.00etan, eta alde zaharreko kaleak zeharkatuz, Burgoen plazaraino iritsiko dira, bidean ikuskizun bereziak egingo dira. Burgoen plazan, talde bakoitzak bere arte berezia erakutsiko du.

'La mano tonta' Valladolideko taldea, Nafarroako Malabaristen Elkarteak, Cordobako 'Juglares de la campiña' taldea, Jaengo Asociacion del Circo Sierra del Aire, Granadako 'El Bolicho' taldea, Asturiaseko Compañia Tres Ruedas, Canarias, Madril eta Zaragozako Malabaristen Elkarteak, Galtzagorri Euskal Malabaristen Elkarteak, eta Kataluniako Zirkoaren Elkarteak dira igandeko ekitaldean parte hartuko duten taldeak.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, **'Zokobetailu'** goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

ZIRIA sartu, ederra sartzen dute Euskalerrri Irratiko Zokobetailu saiokoek. Asteazkenean bertan, baten bati egindako txanxa aditu ahal izango duzue 10ak 11 bitarte. Naturaltasun handiakoa, barregarria eta ongi pentsatua, goizean barrea ez kentzeko proposa.

Altsasu

Alzheimerri aurre egin

A. BARANDIARAN / ALTSASU

Alzheimer gaixotasuna dutenendako Nafarroako lehen zentroa eraikitzen ari dira Altsasun, Felipe Lezea Fundazioak bultzatuta. Lanak joan den abuztuan hasi ziren, eta ekainerako amaituta egongo dira, orain daramaten martxari eusten baldin badiote, behintzat. Hogeita hamar gaixotako tokia izango du zentro berriak, eta eguneko tratamendua —zortzi ordu inguru— nola iraunkorra —gaixotasuna oso aurreratuta daukatenean— eskainiko da. Horrekin batera gaixotasuna sortu aurretiko tratamendua ere izango da, eta horrek aitzindari egingo du zentroa, arreta zuzena eta oso espezializatuarekin. Horretarako 27 langile inguru ariko dira lanean, gehienak ingurukoak, eta eraikina ere erakargarria eta erosoa izango da: solairu bakarra eta patio zabal bat erdian.

Egoitza ez da kasualitatez Altsasun eraikiko. Fundazioa Felipe Lezea bertako enpresariaren asmoa izan da bere emaztearen bidez gaixotasunarekin harremana izan zuen une beretik. Nafarroan zegoen eskaintza urriak —Iruñeko zentroa— eta gaixotasunak berak sortzen dituen ondorioek bultzatu zuten altsasuarra zentroa eraikitzea. «Nafarroan soilik 30 toki dago, Iruñeko zentroan» azaltzen du Lezeak, «eta gaixotasun hau oso gogorra da norbera bakarrik pasatzeko». Bera kostata lortu zuen tokia bere emaztearendako eta hori laguntza izugarria izan zela dio. «Han uzten nuen zortzi ordu egunero, eta horrek lan egiteko eta jendearekin eguteko, hau da, jarraitzeko, aukera eta indarra ematen zidan».

GAIXOTASUN OSO EZEZAGUNA Gaixotasunak etapa ezberdinetan izaten ditu, eta 12 urteko mutiko batek urtebete izan arte edukiko zuen bilakaerarekin konparatzen dute sendagileek. Hasieran depresioak izaten dira gaixotasuna baieztatu arte, eta gero izaten da etaparik gogorrena. Pertsona jabetzen da orduan gaixotasunaz, komunikatzeko lehendabiziko arazoak azaltzen direlako, eta egoera gogortzen da familia-koendako, askotan ez baita asmatzen nola tratatu. Antsietate eta urdurutasuna nagusitzen da frankotasun gaixoarengan, eta horretarako komenigarria izaten da ariketako fisioa.

Ondoren, gaixoak ulertzeko ahalmena galtzen du, eta baita hitz egiteko gaitasuna ere. Hasiera hauek «oso gogorrak» direla



Zelandi inguruan eraikitzen ari da zentroa Felipe Lezea.

A.B.

dio Lezeak, «eta ondo eramatea oso zaila da. Eritasunari buruzko liburuak irakurtzea gomendatzen dute, baina mundua gainean erortzen zaizu, zama hori eramateko gai ez zarela izango esaten baitiozu zure buruari. Azkenan onartu egin beharra dago, eta askotan lagun berriak bilatu, pertsona bakar batek ezin baitu horrekin aurrera egin».

Lezeak berehala ezagutu zituen hainbat familian gaixotasunak zuen eragina eta tokia falta zela eta sortzen ziren arazoak. «Famili asko desegin dira gaixoek sortutako arazoan aurrean, eta batzuk psikologoekin amaituko dira. Jende askok ez zuen

gaixoa zentro egoki batera eramateko aukera hori izan, eta horregatik hasi ginen Vicente Madoz doktoarekin zentro berri bat egiteko aukera aztertzen».

ARAZO FRANKO ADMINISTRAZIOAREKIN

Bi urte t'erdian behar izan dituzte, baina, asmoa zerbaitetan gauzatzeko, eta arazoak administratibotik etorri dira, batipat. «Guk garbi genuen bakarrik Alzheimer gaixotasuna dutenendako zentroa nahi genuela, baina Ongizate Departamentuan beste zaharretxeren antzeko zerbait egin nahi zuten. Horregatik atzeratu eta berandutu da hain-

beste akordioa». Azkenean Osasun Departamentura jo behar izan zuten, eta han onspena eman zioten asmoari, baina hasieran aurrikusita zeuden tokiak franko murriztuta. Arazo hauen barruan zerikusi handia izan zuen egoitzarako Altsasu aukeratzeak, departamentuan Iruñean paratzearen aldekoak baitziren.

Zentroa ez da soilik egoitza izango, eta zaintzaileak espezializatzeko baliagarria ere egiteko asmoa dute fundazioa. Izan ere, gaixotasun honen berezitasun handienetakoa da bere ezagutza falta eta dauden aditu eskasak. «Jendeak bere lanari guztiz atxiki behar du» azaltzen du Lezeak, «eta honi buruz aditurik ez dagoenez, Altsasuko zentro hau nolabait pilotoa izango da, hau da, eredugarria».

Dagoeneko gaixotasuna garrantzia daukatenez ezezik prebentzio lana ere egingo da bertan, eta familiaren egoerari eutsi nahi zaio. «Horretan ari den jendeak inork baino hobeto daki gaixoa tratatzen, konfiantza handia hartzen baitute. Baina horretaz gain, familiakoak ere kontuan hartu behar dira, askotan inork ez baita egin gaixotasunak aurrera egiten duenean».

Ezezagutza hain handia izanik, batzutan gaixoak erotzat hartu dituzte eta beste batzutan etxeetan edo zaharretxetan bildu izan ohi dituzte gaixoak. Honek, baina, gainontzeko zaharrengan eragin txarra izan du berehala konturatzen baitira Alzheimer daukan hori baino hobeto daudela. Horrek, azkenean depresioak sortzen ditu, eta langileendako lana areagotu, arreta handia eskatzen baitute.



LESAKAko Dantzari Ixiki Eguna ospatu zen igandean, 250 partaide ingururekin. 10.30etatik aintzinerara, dianekin, Euskal Herriko hainbat herritik —Gipuzkoa eta Arabatik batipat— etorritako haurrek kolorez eta doinu zuzen jantzi zuten Bortzirietako herria, eta arlo honetan egiten ari den lanaren erakusgarri izan ziren. Eguerdian Plaza Zaharrean bildu ziren, eta Irain bertako taldekoek auresku bat dantzatu zuten denen ohorez. Ondoren kalejira egin zen herriko karraketan zehar, eta bazkaria herriko etxeetan. Arratsaldeko bostetan berriro bildu ziren plazan, eta orduan hamar minutuko emanaldia eskeini zuen talde bakoitzak jendearen aurrean. Ekitaldiak arratsaldeko zazpiak aldera amaitu ziren.

LIZARRAko aintzinaldeek duten balioa azpimarratu zuten Carlos Benegas eta Emilio Ruiz de Arkaute adituek bertako Gustavo de Maeztu Museoa egindako mintzaldi batean. Bi berriztatzaile hauek bost urte eman dituzte Lizarrako gune historikoa aztertzen, eta bereziki Kale Nagusi eta Comerciokoak.



LATASA eta Mugiroko Benten bitarteko autobidearen zatia 1.300 milioi pezeta gehiago kostatuko da, Nafarroako Gobernuak erabaki berri duen aldatutako araberako. Horri esker Urritzako tunelaren 'tunel faltua' izeneko teknika erabiliko da, eta behin behineko desbideraketarako bidea zabalduko egingo da. Hala ere, harridura sortzen du kosturik handiena zertarako erabiliko den jakiteak: drainaketarako, hain zuzen, arlo hori horrelako lan batek eskatzen duen garrantzitsuenetakoa eta aztertzeke lehendabizikoa bada ere. Kostuen aldaketa honekin milioi montioa gastatu dira dagoeneko Andoain-Irurtzako autobidearen lanetan egindako aldatutetan, eta hasierako asmoak franko garestiagoak dira. Aurrikuspen falta edo arduraren falta?

BARAÑAINgo Lagunak udal elkartearen aferak ez dauka, oraingoz, konponbiderik. Nahiz eta epaitegiak arrazoia eman udalarekin duten auziaren inguruan, oraindik ez dute ezer lortzerik izan, eta gehienek nahiko arazo larriak dituzte egun.

Gazteendako Zerkua



Euskadiko Taldekako Xake Txapelketaren 2. Ihardunaldiaren partida. 1993ko urriaren 30an jokatu. Jose-txo Labairu, 1.995 ELOkoa (Iruñeko Arrano Elkartea)-Patxi Gallego, 2.390 ELOkoa (Hondarribiko Mar-laxka).

1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.d5,d5; 4.Ad3,-Ad6; 5.Ze2,Zc6; 6.c3,Dh4; 7.Dd2,-f6; 8.Zf4,gZ-e7; 9.g3,Dg4; 10.De2,-De2; 11.Ae2,Af5; 12.0-0-0-0-0. Posizioa aztertzea ez da erraza. Atzerago daude txurien piezak. Beltzek errege aldeko peoiak martxan jarri zera, zaldi txuriak atzerantz egin lezake. Hala ere, ez dirudi abantaila handirik.

13.Ge1,g5; 14.Zg2,dG-e8; 15.b3,-h5; 16.Aa3. Alfila jokoan sartzeko beharrak bultzatuta. 16...Aa3; 17.Za3,h4. Eraso hasten da. Txurien zaldi bat jokoan kanpo dago, eta kostako zai borrokara itzultzea. 18.g4,Ae6; 19.h3,f5; 20.f3,Zd8. Ederki mugimendua. Beltzen ikuspegi zorrotzak partida erabakitzeke estrategia prestatu du. Helburua: Zaldiak lekuri garrantzitsuetan kokatzea (e4, eta f4, alegia). 21.Ad3,Ad7; 22.Zc2,Zf7; 23.Ge2,-Ed8; 24.aG-e1,hG-f8; 25.cZ-e3, Zd6; 26.Zc2. 'a4' jokaldiak beltzen asmo maltzurak momentuz geldiarazko zituen. Hemendik aurrera, bidea leunago izanen dute. Ikus koa droa. 26... Ab5; 27.Ge3,Ad3; 28.-Gd3,g4; 29.f-g4,Ze4; 30.Ge2. Beltzen 'Gf2' ekiditeko.

30... Gf6; 31.cZ-e3, eG-f8; 32.-Eh2,Gf3; 33.Ze1. Beltzak barnertzea galerazteko aukerarik ez zegoen. 33... Gf2 xa; 34.Cf2, Gf2 xa; 35.Eg1,c6; 36.3Z-c2,Zg6; 37.Gf3,-Ge2; 38.c4,Zf4; 39.d5,d5; 40.a3,-Zg3; 41.Gf4. Matea uxatzeko. Aurrerantzean, tramiteko jokaldiak izanen dira. 41... f4; 42.b4,b5; 43.Zf3,-Cc2; 44.Zh4,Ze2 xa; 45.Ef1,-Zd4; 46.Zg6, f3; 47.h4,Gh2; 48.h5,-Ze2; 49.Ze5,Zg3 xa; 50.Eg1,Gg2 xa mate.

Iratiko ohianaren gainean

IOSU ALFARO

Urteko sasoi honetan, beti bezala, hegazti migratzaileen migrazio denbora bukatzen ari da. Bakarrik kurrilo eta uso batzuk atzeratuak geratzen dira. Hala ere, urtero urtero hegazti askok beren bidaiak egiten dute ekainatik eta egun hau bitarte.

Txorien migrazioaren arrazoi nagusia, askoren ustearen kontra, janari falta da. Hegaztiak, ez dakigu nola, zehatz mehatz esateko, beren lurraldetatik ihes egiten dute. Bidai luze bat eginez, hegoalderuntz beti, nekuko beren tokietara ailegatzen dira. Bidai horretan zenbait oztopo aurkitzen dituzte, Pirineoak, Kaukasoa, Mediterraneo... oztopo hauek gainditzeko hegaztiak bide bat aukeratzeko dute, onena noski!

Bide estu hauetan, adibidez Organbidexka edo Linduxko

menditarrean, hainbat eta hainbat taldeetako lagunak biltzen dira. Talde ekologista hauek urteroko hegazti migratzaileen kopuruaren zenbaketa bat egiten saiatzen dira. Talde asko dira: ANAT-LANE (Lur Adiskideen Nafar Elkartea) Gorosti, Ugatza, Organbidexka Col Libre (Frantziar profesional talde garrantzitsua)...

Batzuentzeko jende hau zoroa da... beraiei ere batzutan... baina hala ere egunero hotz hala bero han daude, lanbroz edo eguzkiz, hodeiez inguratutik edo buru gainean zeru urdina dutelarik, batzuk kobratuz besteak diru guztia jarriz, bokadi-loetatik hasi eta gasolinarekin bukatu. Hemen ondoan beste talde bat daukagu: ehiztariak, ekologistengandik metro gutxietara. Horrela, uso talde bat pasatzen denean, batzuk kon-

tatzen saiatzen dira, besteak, al-diz, zertxobait lapikora eramaten. Imajina dezakezue zer nolako giroa sortuko den bi aldeetatik. Baina bi taldeek, nahiz eta horrela ez iruditu, nahi berdina daukate: txori asko pasatzea —helburu desberdinekin baina—.

Ehiztariak ere meritu asko daukate ez bait da dibertigarria batzutan egun osoa mendian ematea ezer hartu gabe. Hala eta guztiz ere bi taldeek afizioz eta nahi dutelako egiten dute, polita baita, beraiantzat gutxienez, egiten dutena, eta gainera oso giro ona izaten da.

Beraz gu hiriko zaratetan gauden bitartean, han, Iratiko ohianaren gainean gure lagunak daude, eta hemen gainean eta gure buruen gainean batzutan hegaztiak, nekez hegoaldeko lur beroetaruntz urteroko bidaiak eginez.



Monjardin eta Estellerria (I)

842 metrotako mendia da Monjardin. Alturari dagokionez Mentejurraren anaia txikia da. Baina ezin deitu, ordea, anaia gaztea. Monteurrari Karlismoak ireki zion historiaren atea baina Monjardin jadanik sartua zen, Erdi Aroaz geroztik, gaztelu bati atxikia, mairu, franko eta nafarren odolez bustia.

Monjardin euskaldunen lurraldean altxaturik dago, izenak besterik esaten badigu ere. Hori al da betidanik izan duen izena? Has gaitzen gaur daraman izena aztertzen. Lacarrak *Estudios de Historia Navarra* izeneko liburuan mendien historiaren berri zabala ematen digu. Mendiak oso kokaleku estrategikoa du: Estellerria begiztatzen da iparraldetik eta Erribera hegoaldeetik. Hori dela eta garrantzi handiko gaztelua eraiki zuten ton-torrean. Sancho Garces Ia erregeak 914. urtean konkistatu zuen eta hurrez gero, XI. mendean batez ere, Iruñeko apezpikuak eta Nafarroako erregeak lehia bizian aritu ziren gaztelua bata edo bestearen mendean jartzeko. Historia alde batera utzirik, legendak ere ukitu ditu gaztelua eta izena. XII. mendeko *Historia Turpini* izeneko liburuan, Karlomagno sagakoa, aipatzen den *Mons Garzini* Bedier-ek *Monjardinekin* lotzen du. *Tunc Carolus cepit montis Garzini in suum totamque patriam Navarrorum*. Esan dezagun *Historia Turpini* arabera, Karlomagno *mendi garzini-n Furro* buruzagi nafarra, 30.000 nafar eta sarrazenorekin batera, hilen du. Lacarrak legendaren bidez heldu zaigun pasadizoa historiarekin lotzen du, *Historia Turpini* idazten zen garaiko nafar eta frankoen arteko istiluekin hain zuzen.

Gazteluaren izena frankotan azaltzen da dokumentazioan. Gehienetan *Castrum Sancti Stephani* ikusten da, batzuetan hagianimoari *Deio, Deio* eta *Deiu* esaten zaio, hots izen zaharraz baliaturik. Gaur erabiltzen den izena 1143an aurkitzen dugu *in castrum Sancti Stephani de Montjardin*. Etimologiari begira esan behar da, *montis garzini* abiatutik, gaztelua konkistatu eta bertan ehortzi omen zuten Garcia erregearekin lotzen ohi dela. Ez dirudi honek izenaren jatorria azal dezakeenik, batez ere *Montjardin* zaharragoa delakoz. Villamayor de Monjardin izeneko herriaz esan ohi da hiru gezurren hiria dela. Ez da hiria, ez handia eta lorategirik ere ez du. Hala ere izen dotoreak errege eta nobleen gustokoak izan dira beti. Agian *marketing* bidez lekuri basatiara erakargarriago bilakatu asmoz. Urrutira joan gabe hor dugu Bardeako *Peñaflor* izeneko gazteluan. Benetako nafar batek inolaz ere asmatuko ez zuen izena. Ez ahaztu, gainera, Rafael Isok adierazi bezala, Leire aldean, Donejakue bidean hau ere, beste Monjardin batek erromesen pausak bijilatzen zituela.

MIKEL BELASKO



Jenero Xumekoak

Klaus Kinski Aranoko neska

Hemendik gutxira negua izanen da Aranon. Amodioa honat eta harat ibiltzen ohi da. Bi bizkarretako animalia. Berak ez daki, ez du sekula ezer jakingo. Alferrik orain negua karamelatzea.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA


Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Behoko taula osatu ondoren Ultzaman bilduriko erranairu zahar bat ageriko zaizu.

1. Erraz, aisa
2. Herri handiak
3. Ofizina
4. Trago
5. Lurrin

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

N-100

Bizi Bizian



St. Jean le Vieux le 29 Juin 1901.

Ene adiskide Jauna,

Eskuaraz izkiatzen dautzut zeren ez baitakit maluroski espagnolice eta zeren zue ere ez baitakizun naski franxesic. Iduri zaut klarki izkiatuz elgar konprenituko dugula eskuaraz. Lehenik barkamendu galdatzen dautzut ene luzamenaz; zure letra hunara ethorri denean kanpuan nintzan. Markac gintuen bost egunez Apanizen eta Iratin. Gero etcherat itzuli nizanean ene listac behar ukan ditut berehala Comunicatu gardet eta egun choilki izan dut dembora lista horien berifikatzeko. Beldur niz ez dautzutala zue nahi zinduten berri chuchenic igorriko ahal, nahiz borondatia ez nuken falta. Ez da aise segurki yakitia nore dituen kabalac espanako bazketan, deklaratu eta markatu gabe. hortako behar gintuzke akrit guziac bederazka ikusi. Emeki emeki gardekin batean berri gehienac halere yakin dituzkegu; bainan hortako behar da arozia eta dembora. Aldi huntan igorten dautzut lan ttipi bat, Garaziko eta Aezcoako

listac elgarrekin komparatu egin duana. Ihusiko duzu anitz kabaladunec himec deklaratu baino behi gutiago markarazi dutela Espanan; baditake zombaitec behi zombait atchiki duketela etchian eta beste zombait franziako mendiatarat igorri. Bainan beldur niz beste zombaitec trompatzen gaituztela zuec eta gu. Kasu egin behar liteke hurbildanic gure artzainer eta menturaz ere zuen gardet. Gero etcherat itzuli nizanean ene listac behar ukan ditut berehala Comunicatu gardet eta egun choilki izan dut dembora lista horien berifikatzeko. Beldur niz ez dautzutala zue nahi zinduten berri chuchenic igorriko ahal, nahiz borondatia ez nuken falta. Ez da aise segurki yakitia nore dituen kabalac espanako bazketan, deklaratu eta markatu gabe. hortako behar gintuzke akrit guziac bederazka ikusi. Emeki emeki gardekin batean berri gehienac halere yakin dituzkegu; bainan hortako behar da arozia eta dembora. Aldi huntan igorten dautzut lan ttipi bat, Garaziko eta Aezcoako

Leon Curutchet

XAMAR / GARRALDA

Bertze toki anitzetan bezala, Aezkoak ere badu kutxa bat paper zaharrez mukuru bete. Autsa montioka bildurik, armami-loak nonnahi, pipiak xana... ez dakigularik zer dagoen ere. Ahalkegarri, arras. Beharrik eta azken denbora hontan Iruñeko talde bat ikuska ari dela, garbitzen, sailkatzen, antolamendu zerbeit imintzen eta galtzetik begirutzen dutelarik. Biba zieki!

Paper ohoragarri hoietan iraganaren puxkak, aintzinakoan arrankurak eta ertsitasunak ikus dezazkegu, aixaski atzenduak, alta ez dira hain zaharrak. Lana fini ondorean historiarielik badute non ikus, zer iker eta bailarak pairatu duena anitzez hobeki xakiteko parada dukegu. Pairatu diot, zeren gerla kontu frango aipatzen beita, 1530tik altzina mugan egonik, España eta Frantziaren arteko zalaparten erdian egon da beti.

Mugaldean, hain zuzen, erdarak hedatzen hasi zirelarik (ezontzen dugun gisan), Euskarak beharrezko eginkizuna bete zuen, bazter ezina beitzen mendiketaz bertzaldeko harremanetan. Egu, oino ere, Garaziko merkatuan tratutan ibiltzen direnek mintzaira mantentzen dute bizien.

Hau kondatzen dut zeren eta, aipatu artxiboan, bi gutun Euskaraz idatzirik agertu beitera, bidak Baxenabarrekoak. Lemixikoan Arnegiko laborari batek mendian galdutako behi baten berri ematen zakon Aezkoako alkateari, honek ibarrean xakinaraz zezan. Eguneroko afera, arrunta, naturaltasun guziz egina, Baxenaba-

Euskaraz idatziriko eskuizkribuak berri dira aspaldiotan. Fontes Lingua Vasconum aldizkariak XVI. mendeko eskutitzak argitaratu zituen abuztuan ateratako alean, eta gaur Aezkoako artxiboan aurkitutako beste biren berri ematen digu Xamarrek. Bertan aurkitzen diren lehendabizikoak izanik, bere interesa badute, arazo xumeei buruzkoak badira ere.

Paper zaharrak

Erreko Eskuara ezinago dotorean: Arnéguy, le 15 octobre 1901. Yauna, Galdu dut 4 urtheco behi bat, zoinac baitu bilua, ogi bihi kolore, eta ilabete baten burian erdi beharra. Nahi nuke egin dezadazun fagore, yakitia behi hortaz zerbeit berri; zure bailleco herritan. Yakini dut norbeitic erran duela, merkatu egunian, badela behi frantses bat zien herrietan. Ez dut yakin ahal izan norc errana duen gauza hori. Zabala eneco mutil izanac errana daut eni. Behar dena pagatuco dutalaric eginezazu, Yaun alkatia, fagore behi horren, oharkaraztia.

Errecart, Guillaume Migueltua Arnéguy Iduri luke ardura idazten zuela Euskaraz, elea hain du errex eta dotorea. Bigarrena ofiziala da, Léon Kurutxet Garaziko idazkariak egina. Aezkoa-Garazi fazeriari buruzkoa dugu honako hau,azienda kontu. Eder-ederra hau ere (noizbeit xakin ote dugu idazten Hegoaldean?); kabala kontuz landa, arras bitxia da zeren Euskaraz idazteko arrazioa ematen beitauku bertan: St. Jean le Vieux, le 29 Juin 1901.

Gero etcherat itzuli nizanean ene listac behar ukan ditut berehala comunicatu gardet eta egun choilki izan dut dembora lista horien berifikatzeko. Beldur niz ez dautzutala zue nahi zinduten berri chuchenic igorriko ahal, nahiz borondatia ez nuken falta. Ez da aise segurki yakitia nore dituen kabalac espanako bazketan, deklaratu eta markatu gabe; hortako behar gintuzke akrit guziac bederazka ikusi. Emeki emeki gardekin batean berri gehienac halere yakin dituzkegu; bainan hortako behar da adrezia eta dembora.

Yauna, galdu dut 4 urtheco behi bat, zoinac baitu bilua, ogi bihi kolore, eta ilabete baten burian erdi beharra».

Ene adiskide jauna, Eskuaraz izkiatzen dautzut zeren ez baitakit maluroski espagnolice eta zeren zue ere ez baitakizun naski franxesic. Iduri zaut klarki izkiatuz elgar konprenituko dugula eskuaraz. Lehenik barkamendu galdatzen dautzut ene luzamenaz; zure letra hunara ethorri denean kanpuan nintzan. Markac gintuen bost egunez Apanizen eta Iratin.

Beldur niz beste zombaitec trompatzen gaituztela zuec eta gu. Kasu egin behar liteke hurbildanic gure artzainer eta menturaz ere zuen gardet».

Aldi huntan igortzen dautzut lan ttipi bat, Garaziko eta Aezcoako listac elgarrekin komparatu egin duana.

Ikusiko duzu anitz kabaladunec hemen deklaratu baino behi gutiago markarazi dutela España; baditake zombaitec behi zombait atchiki duketela etchian eta beste zombait franziako mendiatarat igorri. Bainan beldur niz beste zombaitec trompatzen gaituztela zuec eta gu. Kasu egin behar liteke hurbildanic gure artzainer eta menturaz ere zuen gardet. Diote batzu eta bertzeac elgarrekin akomeatzen direla; ez dakit zer fundario duen erran horrec. Zure Secretarioac komparatuko du ene lista bere markako listarekin eta menturaz zerbait argitasun yakinen duzue.

Deus bertzeric egiten ahal badut zuen zerbizuko gelditzen naiz eta zuen adiskide fidel.

Léon Curutchet Bixtan denez artzai zemeit fazeriako arauak sahiestu nahian zabilen, hangoak eta hemengoak tronpatuz; ez zen izanen, ez, haien kaltetan. Ezondu nahi nuke, bertzalde, alkateak Kurutxeti igorri zakon ihardespena nolakoaren izan.

Herriaren historian barna ibiliz, Jose Maria Lakarra historiilea aixa goartu zen dokumentuetako eta ahozko mintzairak ez zirela bat; horregatik laket dugu holakoak agertzen direlarik, gehiago orakoan Aezkoan atxemandako lemixikoak direlako.

Ongi etorriak izan ditene, ba, bi gutun xume hauek eguneroko mixeria eta min guziatako kontsolatzaile, amesketa ibiltzeko on; noizapenka bedere!

Koldo Aldaz

Mendi Gidaria

«Belaguan errepidea dago soberan»

PATXI ULAIAR / EGILLOR

Belaguako aterbea utzi berria topatu genuen Koldo Aldaz Egilloreko bere etxe dotorean. 12 urte bertan eman ondoren, geneukan zitara berandutu zen franko, jende asko agurtu behar izan baitzuen bertan. Urte guzti hauetan, ordurarte ez zegoen giro eta ezaugarriak eman baitizkiote aterbe famatuari. Jende pilaketaren artean, mendiaren kutsua ahalik eta hobekien mantenduz, eta inguru bereziki zainduz. Orain, mendi gidaria atera berri duen titularen inguruko lanak eta umearekin aritu behar duela dio, eta espedizio handiak nolabait utzi, lanarekin elkartu arte.

EGUNKARIA.— Zertan aldatu da Belaguako aterbea zu egon zaren 12 urte hauetan?

KOLDO ALDAZ.— Gauza askotan. Hasieran, adibidez, ez zen ia jende joaten, eta oso gogorrak izan ziren lehen bi urteak. Aterbea oso hotza eta gaizki prestatua zegoen, eta txukuntzarekin batera giroa ere aldatzen hasi zen. Mendiko giroa sortu nahi genuen, ez zegoelako. Lehenengo zaindariak ostalariak ziren, eta ez zeukaten mendiarekiko grina hori. Horregatik, jendea ez zen joaten. Ixten zuten nahi zutenean... Guk hartu genuen konpromezua urteko egun guztiak irekitazuteko, eta astean zehar jendea ere etortzen hasi zen. Lan pila egin genuen, baina fruituak ere jaso ditugu.

EGUNKARIA.— Jendearen pilaketak ez al du desitxuratu Belagua? Mendi aterbea baino hoteltxoa baita...

ALDAZ.— Bai, baina hori ez da mendizaleen eraginez izan. Oraindik nahikoa zaintzen dute inguru. Baina hasi zen fondoko eskia, landa turismoa, aldizkari askotan azaldu da Pirinotakoa,

eta horrek eragin du pilaketa eta inguruaren degradazioa. Horren kontra ahalegin guztiak egin ditugu, baina gure eremuan —latak ez saldu, jendeari ohartarazi—...

EGUNKARIA.— Uste duzu Belaguako aterbeak kalte egin diola Belaguari?

ALDAZ.— Akaso bai, baina ez nago ziur. Askotan pentsatu dut horri buruz, baina garbi dago hor dagoela eta ezin dela bota. Normala da han zerbait izatea, besterik ez dagoelako mendate guztian, eta mendizaleek behar dutelako 'oinarrizko kanpamendu' bat...

EGUNKARIA.— Orduan errepidea dago soberan?

ALDAZ.— Hori garbi dago, baina aterbea ez. Txikiago izango balitz, mendiko ideiekin eginga, eta errepiderik gabe, izango zen onena. Baina behin aterbea egon, zer egin? ahaleginak gauzak ez desbideratzeko.

EGUNKARIA.— Eta erraza da giro horri eustea?


ALDAZ.— Ez, ez da erraza. Gainera orain etorriko da berriro Parke Naturalarena, eta orain ikusiko dugu zer gertatzen den horrekin. Alde horretatik asko borrokatu dugu Izaban, eta ez dugu ezer lortu. Erreferenduma eta guzti egin zen herrian Belaguan erreserbaren egitasmoak sartzeko, baina galdu zen. Hala ere, eskuinekoek ere ezin izan dute aurrera eraman beren proiektua: pistak, teleferikoak, eta abar... Baina arriskua oraindik hor dago, Parke Naturalaren proiektu berriarekin, eta lehengoarekin gertatu zen gauza bera gertatuko da berriro: jendea kontra, eta borroka hasiko dira.

EGUNKARIA.— Mendi gidariaren titulua atera berri duzu. Zer da titulua, eta zer frogak egin zenuzten?

ALDAZ.— Joan den urtean egin

Mendi gidariaren titulua atera berri du Koldo Aldazek, lehendabiziko nafarra eta bigarren euskalduna. Titulua bere bizitzaren funtsezko alaketarekin batera etorri zaio, 12

urte bertan eman ondoren, Belaguako aterbea utzi berri baitu. Bertan aterbea ez baino errepidea soberan dagoela dio. Orain, lana eta umea izango ditu gainditu beharreko tontorrak.



Historialik zabalenetakoa dauka Koldo Aldazek.

zen lehen ikastaroa, eta horretarako eskatu zuten historiala, eta baldintza profesional batzuk, tartean 120 egun baino gehiago horretan lan egin izana. Hori zen jendea aukeratzeko, eta hortik 30 hartu zituzten. Gero 12 egun eman genituen Benasquen, eta han ikastaro txiki bat egin genuen, oso trinko eta gogorra: egunean 9-12 ordu. Gero, azken bost egunetan, espezialitate bakoitzaren azterketa egin genuen: izotza, harkaitza, alpinismoa eta mendiko eskia. Laurak gaintuzten gero titulua eskuratzen zen.

EGUNKARIA.— Zertarako balio du titulua?

ALDAZ.— Dirudienez, kirol titulazio berrien egitasmoaren barruan dago hau, eta hau da titulurik garrantzitsuen arlo honetan. Hala ere, birziklaia da, eta hori bukatu arte ezin dugu esan mendi gidari bakarrak garela, besteak ere horretan daudelako. Orain lanbide batek dakarren lan guztia egin behar dugu.

EGUNKARIA.— Mendi gidariaren lanarekin ez al duzu saltzen zure burua, zure afizioa?

ALDAZ.— Orain dela 12 urte gai honi buruz eztabaidatzen genuenean, nik esaten nuen zuk esandako gauza bera: hori zela prositutuzio antzeko zerbait... Baina

Belagua oraindik arriskuan dago, Parke Naturalaren proiektuarekin, eta lehen bezala gertatuko da: jendea kontra, eta borroka».

denbora igaro da eta konturatu naiz izugarri gustatzen zaidala. Gustatzen zaidala jendearekin egotea, eta nik dakidala azaltzea, jendea ere berezia delako, eta gainera oportetan dagoelako.

EGUNKARIA.— Hamaika tontorretan ibilia zara. Orain, mendi gidariaren lanarekin eta, utziko dituzu asmo handiak?

ALDAZ.— Bai, utziko dut. Orain arte denbora izan dut, bi gauzak batera eramateko, baina hemen aurrera, aterbea utzita, eta umearekin, ez dut espedizio batean hiru hilabete etxetik kanpo eman nahi. Hala ere, ez dut erabat baztertu nahi, eta horrek esan nahi du lana mendian bilatu nahi dudala.

EGUNKARIA.— Euskal Herrian izan dira izen handiko mendigoizaleak, garai bat markatu zutenak —Martin Zabaleta, Mari Abrego, Juanito Oiarzabal, zeu—, eta orain datoz gazteak —Iñurategi anaiak, Iñaki Otxoa...—. Asko aldatu da filosofia eta plantemanda, edo berdina da dena?

ALDAZ.— Izan da hutsune handi bat bi belaunaldion artean, eta ez dakit zergatik. Orain ez da lehengo filosofia, baizik eta askoz ere modernoagoak. Aldaketa handienak, hain zuzen, teknika eta prestakuntza izan dira, baina mendiarekiko sentimendu berdintsuak dituztela uste dut. Horretan ez da ezer aldatu.

NOSKIJATOR

© Zaldi Erroak

